



EUSKAL LIGA FASE ERABAKIGARRIAN SARTZEN DA

Arratsalde honetan bertan eskuzko eta fronteniseko partidak jokatuko dira, Portugaleten eta Abetxukon

Kluben Arteko Euskal Liga fase erabakigarrian sartzen da, izan ere, hurrengo astean lehen faseko azken jardunaldia jokatuko da eta orduan modalitate eta maila guztietako finalerdietarako sailkatuen izenak ezagutuko dira. Zuzen esateko, martxoaren 4 eta 5eko asteburuan ospatuko dira finalerdiak eta aste bat beranduago final handiak helduko dira.

Arratsalde honetan bertan txapelketako bi norgehiagoka izango dira ikusgai. Portugaleten, 19:00etatik aurrera, eskuzko 22 urte azpiko mailan, bizkaitarren arteko derbi bat jokatuko da, etxeko Izarra kluba eta Zaldibarko Zaldua nor baino nor arituko baitira. Abetxukon, berriz, 16:00etan hasita, frontenisko nagusi mailako Ohorezko Mailari dagokionez, Arabako Errekaleor eta Luiando izango dira protagonistak.

Jardunaldiko neurketa gehienak bihar, ostirala, eta igande bitartean jokatuko dira, eskuzko nagusi mailako EH Ligako Lea Ibarra eta Lemoaren artekoa salbu. Hau atzeratu egin da, Oier Etxebarria San Frantziskon (Kalifornia) baitago, Euskal Selekzioarekin partida batzuk jokatzeko.



LA LIGA VASCA SE ADENTRA EN LA FASE DECISIVA

Esta misma tarde se disputan partidos en mano y frontenis en Portugalete y Abetxuko

La Liga Vasca de Clubes ya se encuentra inmersa en su recta final, puesto que la semana que viene se disputará la última jornada de la primera fase y entonces se conocerá el nombre de los semifinalistas en todas las modalidades y categorías. Y es que esta ronda de semifinales está anunciada para el fin de semana del 4 y 5 de marzo, mientras que una semana después acontecerán las finales.

Para esta misma tarde están anunciados dos encuentros de competición. En Portugalete, a partir de las 19:00 horas, se vivirá un derbi vizcaíno dentro de la categoría mano parejas sub'22, entre los locales de Izarra y el Zaldúa de Zaldibar. En Abetxuko, mientras, a las 16:00 horas se ha programado el partido de División de Honor senior de frontenis que medirá a los conjuntos alaveses de Errekaleor y Luiaondo.

El grueso de la jornada se desarrollará entre mañana viernes y el domingo, con la salvedad del duelo de mano parejas senior EH Liga que debía enfrentar a Lea Ibarra con Lemoa. Éste ha sido aplazado debido a la presencia de Oier Etxebarria con Euskal Selekzioa para disputar una serie de partidos en San Francisco (California).